

469.

2026ko urtarrila

# Iruinero



**Eider Bengoetxea,  
Ola Sagardotegia**

“Nik uste dut  
sagardoa balioan  
jarri behar dugula,  
atzetik lan handia  
duen edaria baita”

aurkibidea

Bertatik Bertara - Gabonetako argazkiak 4

Kalean Bai - Erlaitz mendi elkarte 6

Oiassotik Irunera - Ospakizunak ez dira hainbeste aldatu 7

Ethan Ramirez 8

Ttipi-Ttapa 10

Samarkanda Tatto 12

Eider Bengoetxea 14

Aulkia birdiseinatzen 20

Caser Residencial Gabonetan 22

Bertso jarriak 23

Denbora pasak 23

Kirola - Suge Trebeak 24

Kirola - Lur-Alai squash kluba 26

Beti Gazte - Pio Barojan odol emate kanpaina 28

iGazte 30

Kultura 31



KALEAN BAI: ERLAITZ MENDI ELKARTEA 06



BETI GAZTE: PIO BAROJAN ODOL EMATE KANPAINA 28

irunero

Erredakzioa:  
Ainara Berges  
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:  
Joseba Arozena

Zuzenketa:  
Aitor Lete

Publizitatea:  
Amaia Terrazas  
Ion Otxoa  
Joseba Arozena  
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea eta maketazioa:  
Maialen Sayans

Inprenta:  
Antza

Argitaratzailea:  
837 comunicaci3n y publicidad S.L.  
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN

“

2,1KM

AP-8 autobidean Arbes-Oinaurre lotune osoa eraikitzeko hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Irungo Udalak.

2,1 kilometroko errepide berriaren proiektua idazteko lanak 2026an egingo dira, 2027aren amaieran obrak hasi ahal izateko, urte eta erdiko eraikuntza epearekin.

“

4 SAIO

Otsailaren 14rako Kemen dantza taldeak antolatutako Euskal Herri Inauterian parte hartu nahi dutenek dantzak ikasteko aukera izango dute.

4 dantza saioak 2026ko urtarrilaren 22tik otsailaren 12ra, ostegunetan, egingo dira, 18:30etik 19:30era, Altsasuko Inauterietan loturiko dantzak ikasteko.

“

40 EROSKETA TXARTEL

“Kontsumitu bermearekin. Erosi Irunen” kanpainaren bigarren edizioa egingo da 2026an.

Kontsumitzaileen artean 40 erosketa txartel banatzeko egitasmoan parte hartu nahi duten saltokiek urtarrilaren 20ra arte eman dezakete izena.

“

IA 6.000 BISITARI

Be Veggie, Euskadiko jaialdi beganoak, ia 6.000 bisitari erakarri ditu bere 7. edizioan.

Bisitaren arrazoi nagusien artean, ia % 30 produktu berrien bila etortzen da, % 21 nutrizioarekiko interesagatik eta % 15 animalien ongizateagatik.

“

11.250 EUROKO ZUZKIDURA

Urtarrilaren 30era arte aurkeztu ahalko dira Ribera beketarako proposamenak.

Guztira, 2 tandem ikerketa proiektu aukeratuko dira eta bakoitzak 11.250 euroko zuzkidura izango du.

“

% 63K GUTXIAGO KUTSATZEN DU

Irungo Udaltzaingoak bi auto hibrido berri gehitu dizkio bere flotari.

Udaltzaingoak 17 ibilgailu jasangarri ditu gaur egun, 27 ibilgailuren artean, eta horrek esan nahi du flotaren % 63k gutxiago kutsatzen duten teknologiekin lan egiten duela.



SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com  
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com





BERTATIK BERTARA

# GABON DISTIRATSUEKIN AGURTU DU IRUNEK 2025. URTEA



**all4móvil**  
Asesoría en telefonía y comunicación

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com



**Descansalia**

ZURE ATSEDENA, GURE LEHENTASUNA

KONPROMISORIK GABEKO EROSOTASUNA - KONFIANTZAZKO MATERIALAK - ARRETA PERTSONALIZATUA

Luis Mariano kalea 2 | (+34) 666 35 97 08 | info@descansalia.com

## MENDIZALEENTZAKO TOPAGUNEA IZATEN JARRAITZEN DU ERLAITZ MENDI ELKARTEAK

Erlaitz Mendi Elkartearen jarduerak mendiarekiko eta mendizaletasunarekiko lotura estua duela esan beharrik ez dago, elkartearen izenak argi uzten du eta. Mendiaz gain, euskararen zabalpenak ere arduratzen ditu eta horregatik, Irungo Udalak bultzatutako

Kalean Bai egitasmora atxikitako elkarreetako bat da. Beste elkarreen antzera, honetan ere boluntarioen lana ezinbestekoa da urtean zehar proposatzen diren ekintzak aurrera eramateko, Miguel Angel Hernández elkarteko lehendakariak, Raul Osa idazkariak eta Rafa Altube diruzainak gogoratu dutenez.

Miguel Angel Hernández lehendakariak adierazi duenez, “hilero txango bat edo bi proposatu ohi ditugu”. Urte osoko egitaraua prestatzen dute horretarako. Orain 2026ko egutegia izango denaren azken xehetasunak ixten ari dira, Irungo Mendizaleak, hiriko beste mendizale elkarreetekin, uztartzen duten egutegian. “Horrela, ia asteburu guztietan mendiaz gozatzeko planak daude aukeran”, erantsi du Erlaitz elkarteko presidentek.

Maila guztietako mendizaleentzako ekintzak proposatzen ahalegintzen dira. “Pirinioetara antolatzen diren irteeren zailtasun maila apur bat altuagoa izan daiteke, baina urtean zehar txango errazagoak ere antolatzen ditugu” esan digu Miguel Angel Hernándezek. Dena den, Raul Osa aipatu duenez, “irteeraren data gerturatu ahala xehetasun guztiak ematen dira, bakoitzak plana bere gaitasunetara egokitzen ote den jakin dezan, ordu kopuruaren, ibilbidearen edo desnibelaren arabera”.

Ohikoa denez, 2026rako askotariko proposamenak dakartzate. Irteera batzuk hemen inguruan egingo dituzte; Oiartzun inguruan, Ernio edo Aralarren. Bestelako txango handiagoak ere prestatu dituzte: Fuentes Carrionas parke naturalera, Pirinioetara eta Pirinio-aurrera joanez. 2026rako erronka berri bat ere badute: irteera handien kasuan, maila horretara iristen ez direnentzako bigarren aukera errazago bat eskaintzen saiatzea, mundu guztiak mendiaz gozatzeko aukera izan dezan. Elkarreak antolatutako ekintzetan parte hartzeko ez da derrigorrezkoa bazkide izatea, baina egia da kideek deskontua dutela prezioan. “Elkartetik federatuta egotea gomendatzen dugu, batez ere, atzerrian egiten diren irteerentarako, seguruaren kontuarengatik”, azaldu du Raúl Osa.

Egun 500 bazkide inguru dituzte, pandemiaren beherakada gainditu ostean; gehienak, Irun eta Hondarribikoak dira. “2026ko irteerentarako izen-ematea irekitzearekin batera, kide berriak batzen zaizkigu beti urteko garai honetan”. Gainera, WhatsApp taldea ere badute eta bertan partaideek ekintza osagarriak bultzatzen dituzte. Guztia, boluntariotzari esker, hori baita elkartearen motorra dena. “Ekintzak antolatzeaz eta horiek aurrera eramateaz arduratzen diren pertsona horiek gabe elkarreak ez luke zentzurik izango”, azaldu du presidentek.

### Menditik haratago

Erlaitz mendi elkartekoek mendizaletasunetik haratago doazen ekintzetan ere hartzen dute parte. Adibidez, Rafa Altubek zera adierazi digu: “Urdanibia plazaren inguruan antolatu ohi diren ospakizunetan aktiboki parte hartzeko ohitura dugu”. Izan ere, Erlaitzek Peña kalean du egoitza, txoko gastronomiko eta guzti. Hura erabili ahal izateko 3 urtez federatzea da betebeharrak. Aitzakia horrekin hilero, bigarren ostegunetan bertan biltzen dira pintxo-potea egin, kideen artean taldea sortu eta informazioa partekatzeke.

Gainera, nahi duenak eskuragarri du elkartearen liburutegia, irteerak antolatzeko mapak eta informazioa kontsultatu ahal izateko. Aipatzekoa da, halaber, urtean zehar prestakuntza saioak antolatzen dituztela mendizaleentzat interesekoak izan daitezkeen gaien inguruan. Materiala alokatzeko aukera ere eskaintzen dute. Elkartearen harrerak berriz, honako ordutegi hau du: astearte eta ostegunetan 10:30etik 13:00era eta 18:00etik 20:00etara. Beraz, egitasmo eta planik falta ez zaienez, Erlaitz mendi elkartean antolatutako ekintzetan parte-hartzaile kopuruak gora egitea eskatzen diote 2026ari.



## OSPAKIZUNAK EZ DIRA HAINBESTE ALDATU

Abendua garai iluna da, egunak motzak dira, eta baratzak loti daude. Neurri handi batean mundua ere geldirik eta ilun dagoenez, gizakiak belztura horrekin bat egin beharrean, dena hautsi eta ospakizunaren beharra izaten du. Tradiziotik horrela jaso dugu, eta agian ospakizunaren aitzakia eguna luzatzen hastearen kontua izan daiteke, neguko solstizioaren festa, alegia, edo akaso, lan gutxiago egin behar izaten zen garaia zenez, bakoitza bere etxean, zer egin jakin gabe egon beharrean, zer hobe adiskide eta familiarekin festak ospatzea baino.

Erromatarrek, abenduaren 17tik hasita Saturnaliak ospatzen zituzten, Saturno jainkoaren omenez. Denboraren, nekazaritzaren eta bereziki hazien jainkoa zenaren omenez. A zer nolako festak antolatzen ziren! Egun horietan eguneroko bizitza irauli egiten zen, eta halako batean, esklabuek nagusiei agintzen zieten, edota gizonezkoak emakumez jatzten ziren, edo kaleetan dadoetan jokatu zitekeen edo... dena zen posible. Festa zen. Legeak hautsi egiten ziren, aro berri bati hasiera ematen zitzaion neguko egun horietan. Berritze modu bat zen. Askatasun adierazpena. Horregatik jendeak pileus izeneko fieltrozko txapel zurixka ere erabiltzen zuen. Txapel hori nagusiek esklabuei jartzen zieten askatasuna ematen zietenean. Saturnalietan, horregatik, jendeak kono moduko txapel hori janzten zuen, askatasunaren sinbolo gisa.

Baina batez ere sekulako ospakizunak antolatzen ziren, etxeetan haragi eta jaki goxoz betetako bankete ikaragarriak, eta ardoa gogotik edaten zuten. Opariak banatzen ziren, gehienetan iluntasuna argitzeko kandelak eta baita zeramikazko irudiak ipintzen zituzten, eta egun horietan kalean jolastu eta jokatu egiten zen. Guk gaur egun loteriarekin egiten dugunaren antzera! Hortxe ibiltzen gara ea zeezer suertatuko ote zaigunaren zain, eta tokatzen zaionak, nahiz eta gutxi izan, txanpain botila bat irekiz ospatzen du beti. Erromatarren garaian ere, antzekoa gertatuko zen Oiaso plazan, jokoan edo ospatzen ziren zozketetan irabazten zuenak gogotik erakutsiko zuen poza. Opariak ere berdin-berdin egiten ditugu, tira, orain agian kandelak baino opari garestiagoak egiten dizkiogu elkarri, kontsumismoaren eraginez, baina kandelak oparitzeak badu lotura guk etxeetan, kaleetan eta nonahi jartzen ditugun argi mordoekin. Gainera etxeetan ospatzen diren bazkari oparoetan ardoa gogotik edaten da. Ez gara hainbeste aldatu. Dena delakoa ospatzeko gogo eta beharra gizakion izaeran dago, alajaina.

Kuriosoa da kristautasunak, Jesus jaio zen eguntzat, Saturnalietako azken eguna aukeratu izana. Ez da kasualitatea. Askoz errazagoa da gizarteak gogoko dituen erritoak mantentzea, nahiz eta aldaketak egin, festa berri bat sortzea baino. Errazagoa da dagoeneko existitzen den festa sinismen berrietara moldatzea. Gizaseme eta gizalabek, neguko egun horietan etxeko zuloan bakarti eta triste egon beharrean, askoz nahiago zuten zerbait ospatu, Saturnoren festa dela edo Jesusen jaiotza... kontua zulotik atera eta alaitasuna partekatzea izaten da. Nahiz eta batzuentzat gabonetako alaitasuna oso inposatua eta behartua izan, gehienontzat gabonetako ospakizuna negua

arintzeko modua da, azkarrago pasatzeko estrategia. Baina batez ere, urte berria datorrenaren aitzakiarekin asmo eta gogo berriak finkatzea da kontua. Urte askoz hobeago bat izateko esperantzan.

Erromatar garaian Saturnalia festak aldaketa ugari bizi izan zituen, eta Errepublikara garaian egun bateko festa izatetik, Inperio garaian 7 egunetara luzatu zen. Guk ere, San Tomas festarekin hasten ditugu gabonak, eta urtarilaren 6ra arte luzatzen dira, nahiz eta duela urte batzuk, etxe guztietan ospatzen zen erregeen festa garrantzia galtzen ari den, eta geroz eta jende gehiagok ospatzen duen Olentzero eta Mari Domingiren opari banaketa.

Ohitura aldaketarik deigarriena, Irungo urte zaharreko festa da, non mundu guztia moztortzen den. Eta ez da oso ohitura zaharra, baina erabat zabaldu da, eta inauterietan baino askoz arrakasta handiagoa duen moztorro festa mundiala da. Saturnalietan bezalaxe!

Ez dakiguna da Olentzero buru handia, edo Trakatan trakatan hiru erregeren orde, zer abesten ote zuten erromatarrek. Hala ere, Saturnoren omenez edo dena delakoaren omenez abestuko zuten, seguru! Lastima zirrikitu batetik ezin ditugula ikusi eta entzun hain aztarna ikusgarriak utzi dizkiguten erromatar garaiko gure ez hain urruneko aiton-amonak. Bai, ez dugu familian oso atzera egin behar Oiasoko gure aurrekoen garaietara joateko. Horra, horra... 50 belaunaldi besterik ez!!!



Ethan Ramírez, motor-gidaria:

# “DATORREN DENBORALDIAN R7AN LEHIATU NAHIKO NUKE, ZAILA IZAN ARREN, GOGOR LAN EGITEKO PREST NAGOELAKO”

Ethan Ramírezek 3 urte eta erdi zituen moto baten gainean lehiatzen hasi zenean. Donostiako motor eskola batean hasi zuen bere ibilbidea eta, ordutik, hainbat moto eta kategoriatatik igaro ostean, egun, 16 urterekin Yamaha R3ko pilotu izatera iritsi da. Kirolari irundarrak amaitu berri duen denboraldiaren balantzea egin du eta, etorkizunean, kirol arloan, aurretik dituen erronkez mintzatu da.

Motoziklismoaren munduarekiko zaletasuna txikitatik datorkio. “Gogoan dut nire aitak erosi zidala nire lehen motoa”, adierazi du Ethan Ramírezek. Ordutik, kategoria eta lehiaketa maila ezberdinetatik igaro izanak esperientzia handia eman diola azaldu du kirolari irundarrak: “pixkanaka hobetzen zoazela ikusten duzu eta geroz eta gauza gehiago lortu nahi dituzu”. Gainera, txikitatik mundu honetan murgilduta ibiltzeari esker, bai bere entrenatzaileengandik bai bere familiak bere zaletasunaren alde egindako guztiarengatik asko ikasi duela azpimarratu du.

Aurten Yamaha R3 Kopan lehiatu da. Are gehiago, Ethan Ramírezek bertan irabazle izatea lortu du. Lasterketa hori orain arte parte hartutako lasterketa berezienetakoa izan da berarentzat, bereziena ez bada. Izan ere, garaipenak motibazio handia ekarri dio, lasterketa gehiagotan parte hartu nahi izateko eta, noski, irabazten jarraitzeko gogoz.

Kataluniako Kopan ere parte hartu du irundarrak eta bertan txapelkunordea izan da. Azkenik, bere kategoriako Espainiako Kopako lasterketa batzuetan ere parte hartu du eta 6. postua lortu du bertan. Ethan Ramírezek nabarmendu duenez, estatu mailako postu hori lortzea ez da batere erraza izan, “aurrekontu faltarengatik ezin izan baitugu Espainiako Kopa osatzen duten lasterketa guztietan lehiatu”.

Amaitu berri duen denboraldiaren aurkezpenean San Juan plazan egin zuen, Cristina Laborda alkatearen laguntzarekin. Errekonoizimendu horrek, denboraldiko erronkei motibazioz aurre egiten lagundu diola onartu du. “Aurten irabazteko gogo handia neukan, iazko denboraldian lesioek helburuen lorpena asko zaildu zidaten eta”, aipatu du Ethan Ramírezek. Hain zuzen ere, lesioengatik, iaz lasterketa bakarrean lehiatu zen eta ondorioz, entrenamendu asko galdu zituen. “Aurten ordea, denboren joanak konfiantza hori berreskuratzen lagundu dit”, azaldu du Ramírez motor-gidariak.

**“Aurten irabazteko gogo handia neukan, iazko denboraldian lesioek helburuen lorpena asko zaildu zidaten eta”**  
Ethan Ramírez, motor-gidaria

Beraz, amaitu berri den denboraldiaren balorazio positiboa egiten du Ethan Ramírezek. “Denboraldian zehar hainbat zirkuitutan

lehiatzeko aukera izan dut eta oso denboraldi lehiatua izan da”. Guztira, 8 lasterketa inguru egin ditu, 2 zirkuitu bakoitzean. Adibidez, Kataluniako Alcarraz zirkuituan lehiatu da edo mundialeko ziurkuitua den Montmelón eta baita Castellollíko zirkuituan ere. Zirkuitu baten eta bestearen artean alde handia dagoela onartzen du Ethan Ramírezek: “Batzuk azkarragoak dira eta besteak, aldiz, motelagoak”. Irundar motor-gidariak onartu duenez, “nire zirkuitu gogokoena Montmeló da, oso azkarra baita”.

## Hobetzeko nahi etengabea

Txapelketek gain, motorrarekin entrenatu ahal izateko etxetik aldentzea da kirol honetan trebatzeko modu bakarra. Horregatik, Aragoin dagoen 74AG Academyko, errendimendu altuko kirolarientzako eskolako pilotua da. Bertan, Adrian Garin du entrenatzaile. Entrenamenduetan gauza ezberdinak prestatzen dituzte, adibidez, abiadura. Bestetik, motocross edo “backtrack” izenekoan ere trebatzen dira, lasterketen



prestatetari begira asko laguntzen baitie.

Horretarako, ahal duen asteburu guztietan motor eskolara gerturatzen da, etxetik entrenamendu gutxi aurreratu ditzake eta. Dena den, Efrén Vázquezekin ere egiten ditu tarteka entrenamenduak. Hala ere, berarekin batera maizago entrenatu ahal izateko, entrenamenduetarako motor berezi bat izan beharko luke. “Zirkuituan berarekin batera entrenatu ahal izatea oso lagungarria zait, batez ere, eguraldi txarra egiten duenean, euri lasterketak egoki prestatzeko”, adierazi du Ethan Ramírezek. Motorraren mantenuaz arduratzeko talderik ere ez duenez, bera eta bere aita arduratzen dira horretaz eta lasterketa bat duten bakoitzean, hemendik eramaten dute lehiatzeko erabiltzen duen motorra.

## Babesle bila

Ethan Ramírezek babesle guztiek denboraldi honetan zehar eta orain arte emandako babesa eta laguntza eskertu du. Izan ere, motoziklismoa bezalako kirol batean funtsezkoa da kanpoko laguntzaileen sostengua izatea. Hain zuzen ere, Espainiako Koparen barnean egin diren proba guztietara bertaratzeko ezinezkoa izan zaio, horrek eskatzen duen aurrekontu altua dela eta. “Andaluzian egin den lasterketaren batera joatea ezinezkoa izan zaigu, horrek aurrekontu handia eskatzen baitu eta”, adierazi digu Ethan Ramírezek.

Diruaz gain, denbora aldetik ere ahalegin berezia eskatzen du batzuetan, zirkuitu batzuk etxetik urruti baitaude. Horregatik, ikasketak zaletasunarekin orekatzen saiatzen da Ethan Ramírez. Astegunetan ikasketekin loturiko guztia aurreratzen saiatzen da, asteburuak motoari eskaini ahal izateko. “Lasterketak ditugun asteetan, batzuetan ostegunetan atera behar izaten gara, eta beraz, antolaketa ona eskatzen du horrek”.

Motor-gidariak azpimarratu duenez, datozen denboraldietara begira, babesleen laguntza funtsezkoa izango da, etorkizuneko erronkei eutsi ahal izateko.

“Orain atez ate joan eta gure kirol proiektua aurkezteko unea da, jendeak ezagutu gaitzan eta gure helburuak lortzen lagundu gaitzaten”, aipatu du motor-gidari gazteak.

## Begirada etorkizunean

Datozen denboraldietara begira, Ethan Ramírezen helburua, ESBKn, Espainiako Superbike Txapelketan, lehiatzea da. Horretarako, “datorren denboraldian R7an lehiatu nahiko nuke, zaila izan arren, gogor lan egiteko prest nagoelako”.

Lehen txapelketak 2026ko apirilean izango ditu. Beraz, bien bitartean, denboraldi-aurreko entrenamenduetan eta prestatetetan buru belarri ibiliko da lanean. “Datorren urtera begira nahi dugun motoa erosteko aukerarik izango ote dugun aztertzea ere falta zaigu”, azaldu digu Ethan Ramírezek, diru aldetik, inbertsio ekonomiko handia eskatzen duen apustua delako.

Ethan Ramírezek argi dauzka gauzak. Izan ere, txiki-txikitatik, argi ikusi du handitan motor-gidari profesionala izan nahiko lukeela. “Amets hori noizbait egia izan dadin, gogor lan egiten jarraituko dut”, azaldu du irundarrak. Lanaz gain, inguruan babes nahikoa lortzea beharrezkoa ikusten du. Bere, ametsik gorena berriz, MotoGPra eta mundialera iristea da eta, are gehiago, bertako txapelkun izatea. Hori lortzeko, bidean, babes eta laguntza handia beharko du motor gidari irundar honek amets txiki eta handiak noizbait errealitate izan daitezen.

**“Nire zirkuitu gogokoena Montmeló da, oso azkarra baita”**  
Ethan Ramírez, motor-gidaria



## ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEI AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK  
BIDEO ZAINZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

info@mr electricsystems.com | (+34) 669 30 23 12

# TTIPI TTAPA EGITASMOAREKIN ETXETIK IRTEN ETA TALDEAN GORPUTZA ASTINTZEKO AITZAKIARIK EZ

Ttipi Ttapa programak Irungo adineko pertsonen ibiltzera ateratzeko gonbidapena egiten die. Astero bi hitzordu dituzte: astearteko eta osteguneko goizeko 10:00etan, Luis Mariano zentro sozialetik abiatuta. Egitasmoaren helburua da Irungo adinekoek jarduera fisiko gehiago egitea eta elkarren arteko harreman sozialak hobetzea. Juana Mari Erro, Gemma Erro eta Jasone Jaunarena proiektuaren arduradunak dira eta egitasmoaren arrakasta azaldu dute.

Irungo Udalak, Nagusilan elkarteak eta Osakidetzak beren aletxoak jarri zuten egitasmo hori abiatzeko. Hasiera batean, orain dela 15 bat urte, ekintza auzoka antolatzeke saiakera egin zen, arrakastarik gabe; jarduera bateratua eta bakarra eskaintzea erabaki zen horrela. Jasone Jaunarenak aipatu digunez, “egitasmoaren hasieran gimnasia apur bat ere egiten genuen aldunditik etortzen zen laguntzaile batekin, ibiltzera atera aurretik”. Pandemia ondoren, ordea, gauzak aldatu egin dira eta orain, laguntzailerik gabe, ibiltzeko bakarrik elkartzeko dira: “Guk gure asteroko hitzorduarekin jarraitzen dugu”, erantsi du Jasone Jaunarenak. Taldeko boluntarioak dira orain gidariak, txaleko horia soinean, taldea zuzentzeaz arduratzen direnak. Hasiera batean, asteke hitzordu bakarra zen, ostegunetan. Juana Mari Errok azaldu duenez, “egitasmoaren arrakasta ikusita, jendea bigarren data bat eskatzen hasi zen eta astearte eta ostegunetan egitea adostu genuen”.

Hitzordua argi dago, urte osoan zehar berdin mantentzen dute eta. Zehazki, astearte eta ostegun goizeko 10:00etan abiatzen dira, Luis Marianoko Zentro sozialetik. Ibilbidea ere nahiko antzekoa izaten da beti, Jasone Jaunarenak azaldu digunez, “Irun erdialdetik irten eta Kaneta porturaino joaten gara, joan eta etorri”. 6 kilometro inguruko ibilbidea da, eta eguerdiko 11:45erako bueltatu ohi dira gutxi gorabehera. Eguraldi txarra egiten duenerako ordezko ibilbidea ere pentsatua dute. Juana Mari Errok aipatu duenez, “euria egiten duenean edo eguraldi txarra, Ficobako aterpean ibiltzen gara, atzera eta aurrera eta, atertuz gero, Santiagoko bidegorritik itzultzen gara ibilbidea osatzeko”.

## Ibilbidean bidelagun

Egitasmoaren helburua argia da: adineko pertsonen etxetik

**“Egitasmoaren arrakasta ikusita, jendea bigarren data bat eskatzen hasi zen eta astearte eta ostegunetan egitea adostu genuen”**

*Juana Mari Erro, Ttipi Ttapako kidea*

irten eta taldean gorputza mugitzeko aitzakia ematea. Juana Mari Errok adierazi duenez, jende asko alargun geratzen denean, etxetik irteteko gogo gutxiago izaten du eta etxean bakarrik geratzen da. Eguraldi txarrak, hotzak edo, besterik gabe,

egun lainotu batek ere ez dute kalera ateratzeko animorik ematen askotan. “Ttipi Ttapari esker, astean bi aldiz etxetik ateratzeko konpromisoa hartua duzu eta errazagoa da ibiltzeko kalera irtetea”, adierazi du Juana Mari Errok. Neguan parte-hartzaile kopurua apur bat jaisten da, baina Gemma Erroren hitzetan, “benetan nahi duenak etxetik atera eta ez du hitzordua galtzen”.

Taldearen osasun ona agerikoa da. Jasone Jaunarenak azpimarratu duenez, “geroz eta jende gehiago batzen zaigu taldera eta horrek asko pozten gaitu”. Hala ere, antolatzaileek gogoratu dute pandemiak parte-hartzaileen kopuruan eragin handia izan duela, pandemia aurretik gehiago baitziren. Juana Mari Errok adierazi duenez, ostegunetan pertsona gehiago batzen dira egitasmora, astearteekin alderatuta. Abenduaren 9ko irteeran adibidez, 28 ibiltari izan ziren. Pandemiaren ostean, 37 eta 42 pertsonako taldeak elkartzera iritsi izan dira. Pandemiaren aurretik 60 ibiltari izatera iritsi ziren. Gemma Errok azaldu du gehien-gehienak emakumezkoak direla eta, beraz, “gizon gehiago animatu beharko lirakeela beraiekin batera ibiltzeko”. Txantxetan, Gemma Errok azaldu du gizonak erakartzeko noizean behin mus txapelketak antolatu beharko dituztela agian.

Jarduera irekia da. Hau da, edonork parte hartu dezake bertan, doan, aurretik izena eman beharrik gabe. Juana Mari Errok aipatu du, batez ere, 60 urtetik aurrerako pertsonentzat pentsatutako ekintza dela. “Hala ere, parte-hartzea guztiz



irekia dago eta, beraz, edonork parte hartu dezake, adina kontuan hartu gabe”, adierazi du Juana Mari Errok. Adibidez, oporraldietan zehar, parte-hartzaile asko bilobekin batera etortzen dira. Jasone Jaunarenak aipatu du ibilaldietan Garaguneko erabiltzaileen konpainia ere izan ohi dutela. Jasone Jaunarenak adierazi du, jendeak zalantzak izan ohi dituela lehen aldiz etortzeko, izena ematea edo ordaintzea beharrezkoa dela pentsatuz, baina inondik inora ez.

## Ibiltzea baino gehiago

Ttipi Ttapa kirola egitetik harago doa. Izan ere, asteroko bi ibilaldiei esker parte-hartzaileen artean harreman estuak sortu dira. “Bakarrik bizi den jendeak lagun berriak egin ditu eta oso eskertuta dago”, azaldu du Gemma Errok. Gainera, ibilaldiez gain, adiskidetasuna urrutiago doa. Behin ibilaldia amaituta, askok hamaiketako elkarrekin hartzeko aprobetxatzen dute, beste batzuk elkarrekin doaz oporretara edo talde bazkariak eta guzti ere antolatzen dituzte. “Ttipi Ttapari esker oso harreman politak sortu dira”, aipatu du Jasone Jaunarenak. Gemma Errok, taldeko kideetako batek, azaldu digu bera oso nagia zela, baina bere ahizpa tematiari esker probatzera animatu zela: “talde baten parte zarela sentitzeak indarra eta energia ematen dizu”.

Urtean zehar ekitaldi bereziak antolatzen dituzte. Esaterako, San Tomas egunaren harira, ibilaldi berezi bat egin zuten 2025eko abenduaren 18an. Horrela, ohiko ibilbidea apur bat laburtuta eta gosea egin ostean, txistorra pintxo goxo batez gozatzeko aukera izan zuten. Hiriko jaietan, Sanmartzialen harira ere ibilaldi berezia antolatzen dute. Taldeko helduena kantinera izendatzen

**“Ttipi Ttapari esker oso harreman politak sortu dira”**

*Jasone Jaunarena, Ttipi Ttapako kidea*

dute eta gainontzekoek zuriz eta gorritz jantzirik laguntzen diote ibilaldian zehar. Ekitaldi solidarioetarako tartea dute, adibidez, Irungo Miliak bezalako egitasmoetan parte hartuz. Argi dago ibiltzeko eta, bitartean, ondo pasatzeko aitzakiak edonon topatzen dituztela.

“Jendeak Ttipi Ttapak dakartzan gauza guztiak jakingo balitu, ziur egunero etorriko lirakeela”, azaldu du Gemma Errok. Kirola egiteko taldeaz gain, giro ona da nagusi bertan. Hiru elkarriketatuek baieztatu digutenez, parte-hartzaileei daukaten gogobetetasun mailaz galdetuz gero, erantzuna 10etik 10 puntukoa izango litzateke. Juana Mari Errok azpimarratu duenez: “taldean oso giro ona egotea lortu dugu”. Gemma Errok, berriz, taldeko pailazoa dela onartu du, ibili bitartean, umore ona falta ez dadin. Ttipi Ttapak jende askoren bizitza eraldatu duela aipatu du Juana Mari Errok: “etxean bakarrik eta triste egotetik, jendea kalera ibiltzera irten eta pintxo-potea, bidaia edo bestelako hainbat ekintza sozial egitera itzuli da”.

Ttipi Ttapa errealitate arrakastatsu bat da dagoeneko. Beraz, jende gehiago erakartzeko eta proiektura batzeko anima dadin, egitasmoa ezagutarazteko publizitatea behar dutela adierazi dute. “Ia-ia familia bat bezalakoak gara, elkar ikusterakoan asko pozten gara eta”, erantsi du Jasone Jaunarenak. Horrela, taldetik kide berriei ongi etorria eman eta lagun berriak egiteko irrikan daude. “Ttipi Ttapa taldea Irungo ekintzarik onena da”, nabarmendu du Gemma Errok. Bere ahizpak, Juana Mari Errok, baieztatu du, “behin animatu eta probatzera etorritz gero, ziurra da errepikatzea”. Aho batez, Gemma Errok, Juana Mari Errok eta Jasone Jaunarenak zalantzan daudenak animatu dituzte Ttipi Ttapara batu eta bidelagun berriak izan daitezen, ez baitira damutuko.



ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTAZIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | [info@aurreraklinika.com](mailto:info@aurreraklinika.com) | [www.aurreraklinika.com](http://www.aurreraklinika.com)

Eric Bengoetxea, Samarkanda Tattoo:

## “TATUAJEEK ETORKIZUN BAT IZAN BEHAR DUTE, HORREGATIK, MODA MOTZAK EZ DIRA NIRETZAKO”

Samarkanda tatuaje estudioa Irungo Meazuri kaleko 7. zenbakian kokatua dago.

Eric Bengoetxearen lanak euskal mitologia eta Asiako kultura nahasten dituen estiloarengatik bereizten dira. Tatuaje sektorean gaur egun ikusten den kalitate eskasiaren aurrean, Bengoetxeak marra sendoak eta kolore solidoak lehenesten ditu, tatuajeek etorkizun bat izan dezaten.

### Nola piztu zitzaizun tatuajeekiko interesa?

Ba betidanik gustatu izan zait marrazketa eta ilustrazioen mundua. Egia da nik txikitan tatuajeak betirako egindako ilustrazio bezala ikusten nituela. Hori zen niretzako azkeneko formatua, ezin zen gehiago eskatu. Horregatik, betidanik interesatu izan zait tatuajeak zituen jendea. Denborarekin ikasi dut tatuajeak egiterakoan sintetizatu egin behar dela, hainbeste detailerik gabe, azkenean, dena nahastu egiten delako bestela. Hori izan da nire ikasketa azken urte hauetan, ilustrazioetatik tatuajeetarako jauzia egiterakoan.

### Interes hutsetik, nola iritsi zara Samarkanda Tattoo sortzera?

Bidaia oso luze baten emaitza izan da. Ni 2010ean hasi nintzen tatuaje munduan sartzen, bai ikasketekin eta bai praktikan, makina zaharrekin. Egia da, 2010etik hona 3 edo 4 urtez mundutik bueltaka ibili naizela. Orduan, itzuli nintzenerako makina guztiak aldatu egin ziren eta nire estudioa ireki nuenerako dena oso bestelakoa zen. Estudioari Samarkanda izena jartzea erabaki nuen hemengo kulturaren eta Txinaren arteko lotura idazteko, Samarkanda, zetaren ibilbidearen barneko hiriaren izena erabiliz. Egia da pena hartu dudala jende gehienak ez duelako ezagutzen izenaren esanahia.

### Nola definituko zenuke zure estiloa?


Tatuatzaile bakoitzaren helburua estilo propio bat izatera iristea da. Hau da, zure tatuajeak ikusterakoan edonork zuk eginak direla jakin dezala. Egia da, nik auzoko jendearekin lan egiten dudanez ere, denetarik egiten dudala. Nire estiloa definitu beharko banu, euskal mitologiaren eta Asiako ilustrazioen

nahasketa berezi bat dela esango nuke.

**Azken urteetan tatuajeen sektorean aldaketa nabariak izan dira, beraz?**

Gaur egun jende gehienak dauka tatuajeren bat, baina, egia da, jendea geroz eta okerrago tatuatzeko dela, nire ikuspuntutik behintzat. Nire arteko irakasleak egun batean galdetu zidan ea nire lanaz harro ote nengoen, izan ere, gero eta jende gehiago ikusten baita taberna bateko komuneko ateko marrazkiekin, zirriborratuta, tatuaje txiki txikiekin. Orain dela urte batzuk aldiz, jendeak gutxiago egiten zituen, baina oso pentsatuak ziren. Gaur egun tatuajea ez da gauza merke bat, oraindik ere ezabatzeko zaila da eta mingarria da, baina, hala ere, jendeak sekulako tatuaje ergelak egiten ditu. Niri gustatuko litzaidake nire tatuajeak Artalekuko kafetegitik igerilekuraino ikusteko modukoak izatea. Hau da, alboko mahaitik ikusten ez baduzu,

↓ Argazkiaren egilea: Jael Álvarez



niretzat ez da tatuaje esanguratsu bat.

**Nolakoa da tatuaje bat egiteko prozesua bezero bat iristen denean?**

Oso galdera polita da, nire negozioa irekitzeko komertzioa prestatzen hasi nintzenean, pentsatzen nuen bezero askok atetik sartu eta zer nahi zuten begiratuko zutela, baina ez da horrela inondik inora ere. Irunen bezero gehienak internet bidez etortzen dira eta zuzenean zer nahi duten argi dute, Hortik abiatuta, gero nik nire estiloan jorratzen ditut. Horregatik, garrantzitsua da auzoko bizitza ez galtzea eta Irun bezalako hirietan jendeak negozio berriak irekitzen jarraitzea, dendetara zuzenean sartzeko ohitura hori galdu ez dadin.

### Azkenaldian ba al dago tatuajeekin loturiko moda berezirik?

Orain jendeak bereziki tatuaje oso finak eskatzen ditu, detaile askokoak eta leku txikietan. Nahiz eta lehenengo egunetan horiek oso polit ikusi, azala ez da papera bezala, bertan zerbait inprimatu eta betirako berdin mantentzen dena. Gaur egun marra fin eta zuzen bat dena, urte batzuetan fideo bat bihurtu daiteke. Tatuajeek etorkizun bat izan behar dute, horregatik, moda motzak ez dira niretzako. Nik bilatzen dudana da hemendik 10 urte barru ere, egindako tatuajeaz harro jarraitzea. Horretarako, marraz oso sendoak izan behar dira eta koloreak oso solidoak.

### Zer aholku emango zenizkioke lehen tatuajea egiteko asmotan dabiltzane?

Jendeak bi zalantza izan ohi ditu momentu horretan: zeinen mingarria den eta ea gerora damutuko ote den. Erantzun erraza dute. Batetik, ez da jendeak uste bezain mingarria, aurretik tatuatu direnei esajeratzea gustatzen zaiela uste dut. Ez damutzeko, saihestu modak; zeure ideia finko bat tatuatzea da proposena.

**“Ez damutzeko, saihestu modak; zeure ideia finko bat tatuatzea da proposena”**

### Tatuajeak egiteak adikzioa sortzen du, benetan?

Nik ez diot ezer berezirik sartzen tintari adikzioa sortzeko. Adikzioa psikologikoa dela esango nuke, azalean eramaten duzunaz gain, erritual baten modukoa da. Prozesu apur bat mingarri honen bidez zure itxura aldatzen duzu eta ahaldundu egiten zaitu eta hori da errepikatzekeko nahia sortzen duena.

### Zeintzuk dira tatuatu daitezkeen gorputzeko atal arraroenak?

Ohikoenak, besoak eta hankak direla esango nuke. Arraroenak berri hartz oiak, ahosabaia, mihia, ezpainak, belarriak, ... Azala duen gorputzeko edozein atal.

### Jendea erakartzeko erronkak jartzen dituzu, ezta?

Zure lehiakideengandik bereizi behar zara eta ni umorea eta sareak erabiliz egiten saiatzen naiz. Horrela, bezeroek, prezioaz gain, tatuaje bat egitea zeinen dibertigarria den ikustea lortu nahi dut. Adibidez, erruleta bat prestatu dut, jendeak jokatzu tatuaje merkeagoak lortzeko aukera izan dezan. Bezeroari garrantzia ematen ahalegintzen naiz, nire kamaradak direla sentitzen baitut, haien azala edukiko ez banu, ez nukeelako lan egiteko aitzakiarik izango.

### Geroz eta gehiago entzuten da tatuajeak ezabatzeko edo zuzentzeko aukeraz. Zuri nola eragiten dizu horrek?

Oraindik ere ez da hain erraza tatuajeak ezabatzea, nahiz eta ezabatzeko saio asko egin. Gehienetan konponbide hoberena “cover” bat edo gainetik beste tatuaje handiago bat egitea dela esango nuke.

### Etorkizunera begira zer helburu dauzkazu?

Tatuajeekiko eta lan egiteko moduarekiko nire ikuspuntua asko aldatu da. Orain arte 5 urtez nire kontura lan egin dut, baina etorkizunean kalitatezko tatuatzaileak batu nahi nituzke. Hemen ez da hain ohikoa, baina amets bezala nahiko nuke tatuaje estudio handi bat izan eta bertan hainbat tatuatzailek lan egitea, bezeroekin harreman estuagoa berreskuratzeko.



IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK - BIDEO GRABAKETA ETA EDIZIOA - MULTIMEDIA

info@bideosare.com | (+34) 680 37 15 66 | www.bideosare.com



ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN  
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24



# EIDER BENGOETXEA

Eider Bengoetxea, Ola sagardotegia:

## “GURE ERRONKA NAGUSIA IZANGO DA BERTAKO GAZTEAK BERRIRO SAGARDOTEGIRA ERAKARTZEA”

Urte berria hastearekin batera Ola Sagardotegian denboraldi berria abiatzeko azken prestaketa lanetan murgilduta daude. Aurten, 2026ko urtarrilaren 18an egingo dute Txotx Irekiera ekitaldia. Beti berezia izaten den ekitaldi hori, iaz are bereziagoa izan zen, Iñaki Bengoetxeak Eider Bengoetxeari lekukoa sagardotegiko giltzak emanda pasa ostean. Dagoeneko Eider eta Ainhoa Bengoetxea ahizpak sagardotegiaren gidaritzan geroz eta ardura gehiago hartzen hasiak dira. Eider Bengoetxeak urte berriak eta etorkizunak ekarriko dizkien erronkak hausnartu ditu.

**EIDER BENGOTXEA ARRUTI**

Eider Bengoetxearen bizitza gazte-gaztetatik Ola sagardotegiko lanetara loturik egon da. Hasieran, barraren atzean eta zerbitzari gisa egin zituen bere lehen lanak. Ostean, upategiarekin eta sagastiekin loturiko zereginetan ardura gehiago hartzen joan zen pixkanaka. Gaur egun, Iñaki aitak eta Ainhoa ahizpak egiten dituzten lanez gain, sagardotegiaren kudeaketa administratiboaz ere arduratzen da. Gainera, sagardo elkarteko batzordekide ere bada.

**Nola doaz sagardotegi denboraldi berria prestatzeko lanak?** Momentuz lasai gabiltza, zeren oraindik denboraldia hasteko hilabete inguru falta da. Upeltegian adibidez, jada prestaketak oso aurreratuak ditugu, izan ere, jada sagardoz beterik ditugulako upelak. Oraindik apur bat irakiten daude, baina urtarrilerako dena prest egongo da, guztiz garbi eta goraino beteta egon daitezen sagardo berriarekin, txotx garaian dastatu ahal izateko.

**Iazko txotx irekiera momentu berezia izan zen. 25. urteurrena ospatzeaz gain, aitak sagardotegiko lekukoa pasa zizuen eta, ezta?**

Bai, oso berezia izan zen. Bagenekien egun berezia izango zela, hori antolatzeke prestaketa lan asko izan zirelako atzetik. Tartean, sorpresa bat ere izan zen, ez nuelako pentsatzen protagonismoa eramango nuenik, ez baitzen hori nire asmoa. Publikoki errelebo hori irudikatu zen, beraz, emozioz betetako eguna izan zen eta oso polita gogoratzen dut.

**Horrela, familiaren negozioari jarraipena ematea erabaki duzue, gaur egun geroz eta ezohikoagoa den zerbait.**

Bai, ez da ohikoa, ez sektore honetan bakarrik, baizik eta orokorrean gertatzen ari den gauza bat da, hau da, negozioak aurrera ateratzeko erreleboak falta direla. Bizitzak buelta asko ematen ditu eta denok ez dugu erabakitzen bide bera jarraitzea. Hemen momentuz erreleboa badago, bai ahizparengan eta niregan, eta aurrerantzean, adibidez, kupeldegia eta sagastiak nire ardura izango dira.

**Erreleboa gertatu zenetik, ardura eta zereginen banaketan aldaketa handia nabaritu duzue?**

Momentuz ez, hau ez baita izan egun bateko gauza bat. Lehendik hasiak ginen aldaketa hau prestatzen. Aitak oraindik ere egiten du lehendik egiten zuen lanen bat eta laguntzen jarraitzen du, baina aldaketak iritsiko dira, bai.

**Sagardotegi giroan hazitakoa izateak abantailarik ematen dizu erronka honen aurrean?**

Bai, azkenean, sagardotegi hau orain dela 25 urte ireki zenean nik 11 urte nituen. Beraz, bai, esan daiteke bertan hazi naizela eta bertan ikasi dudala lanean. Ondorioz, ofizioa ez da berria niretzat eta abantaila bat da hori, bai niretzat zein ahizparentzat. Hortaz, egin behar duguna da horrela jarraitzea.

**Dena den, 25 urteren ostean, sagardotegi munduan gauzak ere asko aldatuko ziren, ezta?**

**“Publikoki errelebo hori irudikatu zen, eta beraz, emozioz betetako eguna izan zen eta oso polita gogoratzen dut”**

Izugarri aldatu dira. Jendearen kontsumitzeko modua asko aldatu da. Batez ere, ordutegiak. Lehen jendea gehiago animatzen zen



afarietarako eta orain aldiz, askok nahiago dute eguerdian bazkaltzera etorri. Aldaketak beti daude, baina batez ere, azkeneko 5 urteetan aldaketa handia nabaritu dugu. Bestetik, nabaritu dugu bertako kontsumitzaileaz gain, estatuko beste lekuetatik, esaterako, Madriletik edo Bartzelonatik jende asko etortzen hasi zaigula.

**Alaba gisa, zein izan da aitarengandik jaso duzuen ikaskuntzarik baliagarriena?**

Gauza asko erakutsi dizkigu, baina, tira, bat esatearren, sagardotegiaren eta kulturaren arteko harremana mantentzearen garrantzia aipatuko nuke. Uste dut hori dela gure gakoa eta noski, sagardotegien nortasuna ere bai. Hau da, sagardoa eta kultura biak batera doaz.

**Zuek, belaunaldi berri gisa, zer erronka dituzue aurretik?**

Asmoa, orain arte lortutako guztiari eusteaz gain, gure asmoa da gazte jendea sagardotegi mundura erakartzea, bertan kontsumitu dezaten. Orain beste kontsumo ohitura batzuk ditugu, garagardoa izan daitekeena. Uste dugu momenturen batean belaunaldien arteko transmisio hori eten egin dela eta, beraz, adin batetik aurrerako jendea etortzen dela batez ere. Zenbait gaztek etortzen jarraitzen dute noski, baina nik uste gure erronka nagusia izango dela bertako gazteak berriro sagardotegira erakartzea, sagardoa urte osoan zehar kontsumitu dezaten.

**“Lehen jendea gehiago animatzen zen afarietarako eta orain aldiz, askok nahiago dute eguerdian bazkaltzera etorri”**

**Denboraldi berriaren atarian, baduzue nobedaderik buruan 2026rako?**

Momentuz ez dugu ezer garbi txotxa irekitzeko hilabete falta denean. Hala ere, gauzak pentsatzen hasiak gara, izan ere, zenbait berrikuntza egiteko beharra ikusten dugu eta. Beraz, ez, oraindik ez dugu aldaketa zehatzik buruan.

**Nolakoa izan da aurtengo uztia eta, ondorioz, nola dator 2026ko sagardoa?**

Uztia oso handia izan da aurtun. Hala espero zen eta sagar asko izan dugu, baina, egia esatearren, uste zena baino gutxiago. Hainbeste sagar edukita eta sagarren ia % 60a etxekoa izanik, sagardo ezberdinak egiteko aukera ematen digu horrek. Duela urte batzuetatik hona hasi ginen sagar desberdinekin sagardo mota ezberdinak sortzen, joko bat balitz bezala. Horrela, ordutik, sagardo monobarietalak eta bibarietalak egin izan ditugu. Aurtun, kantitate handia genuenez, 4 kupel ezberdin egin ditugu guztira, gure ohiko sagardoaz gain. Sagardo berri horiek oso bereziak dira, ondo aukeratutako sagarrekin egindakoak eta, esan bezala, monobarietalak eta bi barietalak dira. Urtarriletik aurrera sagardo berezi horiek dastatzeko aukera izango dugu sagardotegian.

**Gaur egun gainera, sagardotegian bertan edateaz gain, sagardoa etxean disfrutatzeko aukera dago eta hala eskaintzen duzue zuek ere, ezta?**

Hori da. Batzuetan pentsatzen da sagardoa sagardotegian bakarrik kontsumitzen dela eta ez, sagardotegitik kanpo ere

**“Hau da, sagardoa eta kultura biak batera doaz”**

asko edaten da. Egia da hemen, gure zonaldean, Gipuzkoan batez ere, sagardo

**Aral Quiromasaje**

MASAJE ON BAT MEREZI DUZU

www.aralquiromasaje.com

Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

**BADOA**

BIZIKLETA BIZITZA DA

BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA · ALOKAIRUA · DENDA

REPARTO EN BICI · ALQUILER · TIENDA

+34 943 099 647

+34 722 653 643

Santiago, 49, Irun

badoa@badoa.eus | badoa.eus | @badoa\_bb

**lassai**

Psikologa

ZERK KEZKATZEN ZAITU?

www.lassaipsicologia.com

San Francisco Kalea 46 (10. lok) | 632 40 21 88



**“Sagarren ia % 60a  
etxekoa izanik, sagardo  
ezberdinak egiteko  
aukera ematen digu  
horrek”**

asko edaten dela. Adibidez, jatetxeetan gero eta gehiago kontsumitzen den edari bat da. Azkenean, freskagarria den edaria da eta alkohol graduazio baxua du. Gainera, gazteen artean sagardoa edateko joera dagoela esango nuke, baina oraindik agian egun jakinetan bakarrik. Hau da, askotan sagardoa San Tomas, Sagardo Eguna edo antzeko festekin lotzen dugu. Hortaz, gure asmoa da egunerokotasunean ere edo edozein ostatura joaterakoan, poteoan esaterako, sagardoa eskatzea eta edatea.

**Zer eskatzen diozue aurtengo denboraldiari arrakastatsua izan dadin?**

Beti bezala, denboraldi lasai bat izatea espero dugu, jendeak disfruta dezan eta sagardoa dastatzeko aukera izan dezan. Nik uste dut sagardoa balioan jarri behar dugula, atzetik lan handia duen edaria baita. Izan ere, sagardoa egin arte urte guztiko lana dago atzetik: sagastietatik hasita eta elaborazio prozesu guztia kontutan hartuta. Beraz, gure helburua hori da, jendea pixka bat kontzientziatzea poliki-poliki sagardoa egunerokotasunean ere edateko edari ona izan daitekeela. Horretaz gain, bere balioa duela eta horregatik, balioan jarri behar dugula.

**Sagardotegira jendea erakartzeko jarduera osagarriak, adibidez, bertsolariak edo trikitilariak ekartzea, lagungarria izango da, noski, ezta?**

Hori da. Azkenean guk nahi duguna da jendea gurera etortzea eta bertan entretenitua sentitzea, hau da, esperientziaz gozatuz.

asko edaten dela. Adibidez, jatetxeetan gero eta gehiago kontsumitzen den edari bat da. Azkenean, freskagarria den edaria da eta alkohol graduazio baxua du. Gainera,

**“Erronka izango da  
gazteria erakartzea,  
sagardotegietan  
kontsumitzen jarrai  
dezan”**

Izan ere, sagardotegia sozializatzeko beste toki bat da. Kupeletara altxatzen garenean magia hori sortzen da, beste edozein jatetxetan gertatzen ez dena. Gainera, jende berria ezagutzeko aukera ematen duen lekua da. Bestetik, kulturalki ere informatzeko leku aproposa da. Horregatik, ekitaldi bereziak antolatzen saiatzen gara, bai: bertso bazkariak eta afariak, kantu afariak eta trikitixa emanaldiak izaten ditugu larunbatetan eta bisita gidatuak ere eskaintzen ditugu, esperientzia guztia osatzeko.

**Egun, sagardotegiaren sektorean lanean ari zaretenen artean, emakume asko zarete?**

Momentuz oraindik gizonaren irudia gehiago ikusten da sagardotegietan emakumeena baino. Egia da, hurrengo belaunaldiei begira, hau da, nire atzetik datozenetan, emakumeak geroz eta gehiago direla eta, beraz, ziur nago hemendik aurrerako urteetan emakume gehiago ikusiko ditugula sagardotegien buruzagi lanetan.

**Zeintzuk dira etorkizunera begira sagardotegiei ikusten dizkiezun erronka nagusiak?**

Erronka izango da gazteria erakartzea, sagardotegietan kontsumitzen jarrai dezan. Hau da, beraien aitona-amonek edo gurasoek zeukaten ohitura hori barneratu dezaten. Bestetik, krisi ekonomikoa hor beti ate joka dugu, prezioak etengabe igotzen direlako, beraz, ulertzen dugu menuaren prezioa askotan hainbeste ez etortzeko arrazoia izan daitekeela. Beraz, bai, horretan sektoreak erronka handia duela uste dut, sagardotegia denon kontsumo gaitasunetara egokitzen den lekua izaten jarrai dezan.

**“Kupeletara altxatzen  
garenean magia hori  
sortzen da, beste edozein  
jateketan gertatzen ez  
dena”**



AYURVEDA MEDIKUNTZA %100 NATURALA ETA EKOLOGIKOA  
ELIKAFOODS.COM

(+34) 633 551 756 | info@elikafoods.com

elikafoods.com



# BIDASOA LHIKO ZURGINTZAKO IKASLEEK AULKIAK BIRDISEINATZEKO ERRONKA ONARTU DUTE

Bidasoa LHIIko Zurgintzako erdi mailako zikloko ikasleei erronka berezi bat egin diete irakasleek: aulkiak sortzea eta birdiseinatzea. Behin erronka ezagututa, burua ideien bila jarri dute martxan eta eskuak berriz, lanean. “Aulkia birdiseinatzen” proiektuaren emaitza ordea ez da ikastetxean gelditu, abenduaren 18an San Juan plazan aulkiak erakusteko erakusketa publikoa egin baitzuten. Irakasle zein ikasleak harro agertu dira aulki formako proiektuaren emaitza erakutsiz.

Haitz Urtxegi eta Daniel Zagariuk aulkiak eraiki eta birdiseinatzeako proiektu honetan parte hartu duten bi ikasle dira eta esperientzia nolakoa izan den partekatu dute. Haitz Urtxegik azaldu duenez, lehenik eta behin banketa bat erakutsi zieten eta horri hobekuntzak egitea eskatu zieten. Proiektua egiteko taldetan antolatu ziren, eta beraz, behin irizpideak jasota, bakoitzak zer egin nahi zuen erabakitzeko ordua iritsi zen. Daniel Zagariukek aipatu duenez, aulkiak egurrezko oholtzarretatik abiatuz eraiki dituzte. “Neurketak eta planoak egiteaz gain, aulkia sortzeko prozesu guztia guk geuk egin dugu”, adierazi du Zagariukek. Gainera, aulkiak eraikitzeke ez dute inolako torlojurik erabili, hau da, kaxa eta zirien bidez muntatu dute eserlekua.

Ibai Gómez irakasleak, aldiz, instalazio eta altzarigintzako lehen mailan Materialak eta Eraikuntza Soluzioak ikasgaiak ematen ditu. Irakasleak azaldu duenez, aulkiak sortzeko pinu zura erabili dute, eta beraz, “material aldetik ez du erantzukizun handirik izan modulu honek”. Eraikuntza soluzioen atalean berriz, ikasleak oinarritzko aulki batetik abiatuta, altzariaren birdiseinua egiteaz arduratu dira.

## Diseinu propioak

Sortutakoak ez dira nolanahiko aulkiak izan, izan ere, ikasle bakoitzak bere ukitu propioa eman diolako proiektuari, ikasitakoaz gain, irudimena eta trebezia batuz. Haitz Urtxegiren esanetan, “taldeka egindako proiektua izan denez, 4 aulki berdin daude, baina bakoitzak bere modura egin du”. Aulkiak diseinatzeke

orduan, Daniel Zagariukek aipatu du Googlen ideiak hartzeko bilaketak egin dituztela, baina bakoitzak bere ukitua eman diola azkenean.

Ibai Gómez irakasleak aipatu duenez, “ikasle bakoitzak bere estilo eta gustuen arabera birdiseinatu ditu aulkiak”. Horrela, emaitza taldeko lanaren fruitua izan da. Emaizta askotarikoa izan da: aulki batzuk taburete estilokoak dira, altuxeagoak, batzuek bizkaraldea dute eta beste batzuek ez, batzuei beso-euskarriak jarri dizkiete eta besaulki motakoren bat ere aterata da. “Emaizta eta produkzioa oso askotarikoak izan dira”, nabarmendu du irakasleak.



Haitz Urtxegiren taldeak egindako aulkien kasuan, proiektuak hanka-sartzeetatik ikasteko balio izan die. “Hasieran planoak marraztu genituenean errazagoa izango zela pentsatu genuen, baina egiten hasi ahala konturatu ginen oso mozketa zailak egitea eskatzen zigula”. Oztopoak oztopo, azkenean hasierako ideia aurrera aterata eta aulki forma hartu du. Daniel Zagariukek berriz, azaldu digu prozesu erraza izan dela, denon artean egin dutelako eta, beraz, polita iruditu zaiela.

“Kontuan hartuta lehenengo mailako ikasleak direla, hasiera batean zailtasunak izan dituzte diseinua egiteko orduan, erronka ausartak aukeratu dituztelako”, azaldu du Ibai Gómezek. Irakasleak onartu du, oinarritzko aulkitik abiatuta aldaketa handiak egin dituztela. Ondorioz, “momentu batzuetan blokeo txiki batzuk gertatu dira, baina aurrera ateratzeko moldatu dira eta oso emaitza positiboarekin gainera”. Izan ere, ikasleei eskatutako proiektua bizitza errealeko erronka bat izan da: altzari bat egitea egur trinkoa erabiliz eta diseinu propioarekin.

Ikasgelan ikasi eta barneratutakoa praktikara eraman dute horrela. Haitz Urtxegik azaldu du trintxarekin egurrean formak egiten ikasi zutela. Horrela, egurrean ziriak egiten ikasi zuten pixkanaka. Ibai Gómezek adierazi duenez, orain arte eskoletan marrazketako erremintak erabiltzen irakatsi diete, “entrenamendu moduan”, eta gero hori dena aulkietan aplikatu behar izan dute. Hori menperatuta, “pieza handiagoak egiten hasi gara pixkanaka eta orain aulkia sortu dugu”, adierazi du Urtxegik.

**“Kontuan hartuta lehenengo mailako ikasleak direla, hasiera batean zailtasunak izan dituzte diseinua egiteko orduan, erronka ausartak aukeratu dituztelako”**  
*Ibai Gómez, irakaslea*

## Erakusketa lana

Proiektua hasi zutenean ikasleek ez zuten espero horrelako emaitzarik izango zuenik eta aulkiak kalera, erakusketa formatuan, aterako zituztenik. Zehazki, abenduaren 18an, ikasturtearen lehen zatia agurtu aurretik, goizeko 10:00etan ikasleek sortutako aulkiak San Juan Arri plazan jarri zituzten ikusgai. Erakusketaren helburua ikasleen trebetasun teknikoak, sormena eta diseinurako gaitasuna erakustea izan da, Lanbide Heziketako prestakuntzaren kalitatearen eta enplegarritasunarekiko konpromisoaren adierazle gisa. Gainera, bertara gerturatu diren ikusnahiei aulkiaeren prozesuari buruzko azalpen teknikoak eman dizkiete.

Haitz Urtxegiren hitzetan, “interesgarria iruditu zitzaidan gure lana kalera ateratzeko aukera, horrela, ikastetxeak ez direnek, gure lanaren emaitza ikusteko aukera izan dezaten”. Daniel Zagariukek erantsi du, irakaslearen apeta izan zela aulkiak kalera ateratzea, baina egitasmo polita dela. Hain zuzen ere, Ibai Gómezek gogoratu du tailerreko irakaslea eta ikasleen tutorea den Josu Salegi irakasleak proiektu hau plazaratzeko gogoia zuela, Bidasoako zurgintzako ikasleek zer-nolako lanak egiten dituzten erakusteko. Bide batez, eskualdeko jendea horrelako ikasketak egitera animatzeko aitzakia ere izan da.

Ezagutza berriak praktikan jartzeaz gain, proiektuak zurgintzak nolako gauzak sortzeko aukera ematen duen ikusi dute. “Behin aulkia egiteko gai izan garela ikusita, gauza gehiago egiteko gogoia sartzen zaizu”, adierazi du Haitz Urtxegik. Esaterako,

**“Neurketak eta planoak egiteaz gain, aulkia sortzeko prozesu guztia guk geuk egin dugu”**  
*Daniel Zagariuk, Bidasoa LHIIko zurgintzako ikaslea*

mahai bat eginez proiektua osatzea ondo legokeela aipatu du Bidasoako ikasleak, egunero erabiltzen diren objektuak izanda, are bereziagoa baita horiek zuk zeuk eginak direnean.

**ZURE KONPONBIDE INTEGRALA**

GARBI GOXON, ZURE BIZITZA ERRAZAGO EGITEN DUGU

**GARBITEGIA - MASKOTA GARBITEGIA - VENDING 24H**

EGUNERO IREKITA 8:00ETATIK 22:00ETARA

Puiana Kalea 18 | 621 15 09 79 | [www.garbigoxo.com](http://www.garbigoxo.com) | [info@garbigoxo.com](mailto:info@garbigoxo.com)

**IRENE LAVÍN**

MICROPIGMENTACIÓN

**MIKROPIGMENTAZIO ESTETIKO ETA PARAMEDIKOA GIZON ETA EMAKUMEETAN**

Jostun Kalea 9, Irun | (+34) 682 34 85 78

# GABONETAKO MAGIA CASER EGOITZARA IRITSI DA JARDUERA PROGRAMA ZABALAREKIN

Caser Residencial zentroak argitu ditu dagoeneko 2025eko Gabonak, bertako biztanle guztientzat pentsatutako jarduera-programa zabal eta bero batekin. Nahiz eta adineko askok euren senideen etxean ospatu dituzten data maitagarri hauek, Anaka eta Betharrameko egoitzetan geratzen direnek musikaz, ohituraz eta belaunaldien arteko topaketa hunkigarritz beteriko agendaz gozatu dute.

### Caser Anaka

Caser Anakan, elkartasunaren espiritua eta haurtzaroa izan dira protagonista. Azpimarratzekoa da Eguzkitzako ikasleen bisita, Hirukide Elkartearen bitartez, helduei Gabonetako gutunak ematera etorri baitira. Truke hunkigarri hori “Diario Vasco” egunkariak grabatu du, “Nagusiak eta Gabonak” egunkariari buruzko bere ale berezian txertatzeko.

Musika izan da ardatz nagusia, San Gabriel parrokiako haurrek gabon kanta berri bat interpretatzeko egin duten bisita bereziarekin, La Salle eta Larreaundiko abesbatzen emanaldiei gehituz. Ospakizunak osatzeko, egoiliarrek Gabonetako txangoa egingo dute egun horietako ohiko postuak bisitatzeko, baita Gabonetako eta Gabon Zaharreko afari eta bazkari bereziak ere, Olentzeroren eta Errege Magoen etorrera oparien banaketarekin ospatzea ahaztu gabe.



### Caser Betharram

Caser Betharram ez da atzean geratu, artez eta errekonozimendu mediatikoz betetako programa bat eskainiz. Egoitzak Toki Alai ikastetxeko ikasleen bisita jaso du, bertako nagusiei jaiak zoriontzeko, belaunaldien arteko beste loturagune bat sortuz.

Musikaren kalitatea bermatuta egon da Betiko, Klink eta Eskifaia abesbatzen emanaldiekin. Gainera, barne-partaidetza sustatu da, egoitzako bizikidetza unitateen arteko gabon kanten eta zorion bideoen lehiaketa dibertigarri baten bidez. Egitaraua osatzeko, txango atsegin bat egin dute Endaneara.


Azpimarratzekoa da zentroan “A vivir que son dos días” irratsaiorako emanaldi berezi bat egin dela, “Mayores y Navidad” saioari segmentu bat eskaini diona, hiru egoiliarri elkarriketak eginez.

Azken buruan, Caser Residencialen egoitzan Gabonak alaitasun partekatuko garai bihurtu dira aurten ere, non musikak, tradizioek eta belaunaldien arteko topaketa baliotsuek bermatu egiten duten egoiliar bakoitza babestua sentitzea eta jai hauek merezi duten ilusioarekin ospatzea.



## DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Neguko arropa



### Horizontal

- 4- Eskuak bero mantentzeko.
- 5- Oinetako sendo eta beroak.
- 6- Burua estaltzeko erabiltzen dena.

### Bertikal

- 2- Neguan janzten dugun arropa lodia.
- 4- Beroki motzago bat.
- 5- Lepoa babesteko erabiltzen da.

6 Hitz: Neguko eguraldia

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | K | Q | N | M | P | D | N | R | W | C | J | B | K |
| L | U | H | D | E | T | V | M | N | M | U | S | E | J |
| Z | B | R | Y | H | K | I | E | R | R | S | T | A | P |
| F | O | A | I | A | P | T | H | A | I | Z | E | A | H |
| C | N | S | R | A | K | K | L | M | U | I | C | O | Z |
| Y | T | L | Y | B | F | S | G | E | L | U | R | R | A |
| G | C | T | A | V | Y | T | F | K | M | Y | X | E | B |
| G | O | I | A | I | G | P | C | W | V | M | G | K | U |
| N | M | S | Z | D | N | N | G | C | R | H | U | A | P |
| P | T | V | K | O | W | O | M | J | F | Z | S | I | M |
| S | T | R | Y | L | T | U | A | T | X | K | M | T | I |
| Q | W | H | F | U | E | Z | K | H | W | Y | G | Z | J |
| T | F | J | L | V | J | B | A | R | I | R | Z | A | K |
| I | N | X | A | U | S | B | J | D | R | T | F | Q | P |

- Elurra
- Euria
- Izotza
- Haizea
- Lainoa
- Ekaitza



## LUHUSOKO GORABEHERAK

Doinua: Maskadak heltu gira  
Egilea: Iker Altuna Albisu

- Azkenaldian zenbait  
aldaketa izan  
dira, egia esan,  
Ikerren bizitzan.  
Bertsoak jarri ditut  
ohitura den gisan,  
interesa duenak  
irakurri ditzan.
- Luhusora joatea  
aukera zelako,  
jada hemen bizi naiz,  
konturatzerako.  
“Biziraungo ote dut  
Hendaia tik kanpo?”  
Behin bizi gara eta  
probatu beharko!
- Hasieran sentitu  
naiz hemen arraro,  
herri txikia da hau,  
lasaia zeharo,  
gaueko zortzietan  
kristaurik ez dago;  
baina lasai bestela  
oso ongi nago!
- Ez, ez, lasai ze ari  
nauzue barrezka,  
nola jende dezente  
dabilen galdezka.  
Hau ez da leku txarra,  
ez zaitezte kezka!  
Akats bakarra dauka,  
tabernarik ez da!
- Baina zabala denez  
hemengo partzela,  
kirolerako dugu  
toki bat itzela.  
Neurrira ipini dut  
txirrindaren zela.  
Arruti eta Maia  
presta daitezela!
- Eta bertsotan inor  
ote da ari han?  
Hori pentsatuko du  
norbaitek agian.  
Ba izena eman dut  
bertsoen habian,  
Irisarriko bertso  
eskola handian.
- Bertsotan segitzeko  
beraz nago gertu;  
ahal bada, bertsokera  
hobetu, edertu.  
Jaizubia hor dago,  
betiere gertu,  
barka bi hilabetez  
ez banaiz agertu!
- Lasai, uste baino lehen  
banatorkizue,  
baina beste gauza bat,  
aizue, aizue!  
Irakurleoi, zuzen,  
hor doakizue:  
Luhuso non dagoen  
ba al dakizue?
- Hendaia ren antzera,  
ertzeko, mugako  
herria da Luhuso,  
beraz antzerako!  
Hortaz etxean nago,  
lasai eta bapo,  
Lapurditik sekula  
ez naiz aterako!
- Hementxe hamar bertso  
zuentzat opari,  
bizitzen ari naizen  
aldaketen kari.  
Nahiz eta gaur nabilen  
hemen ibiltari,  
noizbait itzuliko naiz  
etxera kantari!



Erantzunak webgunean:  
[www.irunero.eus/denborapasak/](http://www.irunero.eus/denborapasak/)



KIROLAK

## SUGE TREBEAK BOLEIBOL KLUBAK HAZKUNDE GELDIEZINAREN BIDETIK JARRAITZEN DU

Izen berria estreinatu du aurten Suge Trebeak Irungo boleibol klubak. Orain dela hiru urte sortu zuten kluba emakumeei boleibolean aritzeko aukera eskaintzeko. Geroztik, hainbat berrikuntza izan ditu izenaz gain, kluba handitzen joan delako eta aurten talde mistoa dutelako estreinakoz. Joxe Roderro Suge Trebeak bolei klubeko ordezkariak aurtengo denboraldiaren balorazioa egin du.

### Zergatik erabaki duzue Mayumi Boleibol klubaren izena Suge Trebeak taldearengatik aldatzea?

Ba 8 edo 9 neskekin hasi ginen eta, mesede bezala, Mayumi judo klubeko izena hartu genuen. Handitzen hasi ginela ikusita, konturatu ginen ezin genuela horrela jarraitu eta erabaki genuen klub berri bat bihurtzea.

### Emakume taldeekin hasi zineten soilik, ezta?

Neska horien gurasoek hasi genuen kluba eta bi aukera genituen: Hondarribira joatea edo hemen zerbait sortzea. Pixkanaka jendea apuntatzen zela ikusita, hemen jarraitzea erabaki genuen, zorionez.

### 10 pertsona baino gutxiagorekin hasi eta kopuru hori denbora gutxian biderkatu egin da, ezta?

Hori da, kirolarien kopurua etengabe handitzen ari da. Orain 170 neska jokalarik dauzkagu eta 3 mutil. Gainera, jendeak etengabe deika jarraitzen du informazio eske. Jada ez dugu jokalarik berrientzako ia lekurik, baina saiatzen gara behintzat entrenatzera etortzeko aukera eskaintzen berriei, gutxienez kirola ezagutzeko aukera izan dezaten. Kadete mailatik gazteen maila arteko taldeak dauzkagu. Jokalarik txikiak 8 urte dauzka eta handienak 17 urte bete ditu, beraz, tartean askotariko adinak dauzkagu. Guztira, 12 talde ditugu. 2 kimuetan, 4 infantiletan, 4 kadetetan eta 2 gazteetan.

### Pixkanaka mutilak ere klubera batzen hasi dira. Kasu berezia da, normalean kontrakoa gertatzen delako, hau da, kirol klubetan nesken kopurua txikiagoa izan ohi da.

Oraingoz talde misto bakarria dugu, kimuetan, legearen barruan dagoelako. Gero hortik aurrera taldeak ezin dira mistoak izan, beraz, ez dakigu zer gertatuko den haiekin, baina tira, momentuz jokatzeaz disfruta dezatela. Pena ematen digu

“Orain 170 neska jokalarik dauzkagu eta 3 mutil”

haiek klubean jarraitu ezin izateak, baina egia da klubera

oraindik ez dela mutil gehiegi batzen. Kluba emakumeen kirola indartzeko sortu genuen, askok kirola goiz uzten dutela ikusita eta hirian zegoen eskaintza osatu nahian. Izan ere, agian ordura arteko kirolak ez ziren beraien gustukoak eta guk izandako gorakadarekin ikusi dugu boleibolak baduela nesken artean arrakasta.

### Entrenatzeko eta lehiatzeko Irungo hainbat espaziotan aritzen zarete.

Saskibaloi eta eskubaloi taldeekin batera WhatsApp talde bat dugu eta bertan koordinatzen gara espazioak partekatzeke. Entrenamenduetarako gutxi gorabehera moldatzen gara, izan



ere, Boleibolean jokatzeke ez delako espazio gehiegirik behar. Horregatik, Toki Alain, Lekaenean eta La Salle ikastetxeetan eta Azken Portu kiroldegian entrenatzen dugu. Txapelketetarako, aldiz, arazo gehiago ditugu, leku faltarengatik.

### Lehiaketari dagokionez, nola doa aurtengo boleibol denboraldia?

Ligan eta Kopan jokatzen ari gara. Koparen barnean bi txapelketa maila daude: errendimendukoa eta parte-hartzekoa, hau da, lehen eta bigarren maila izango liratekeenak. Lehen mailako haurrek abenduaren 20an Gipuzkoako finala jokatuko dute, partidu guztiak irabazi osten. Gainontzeko taldeak parte-hartze mailan daude. Orain dela 3 urte denboraldi guztian 10 partidu irabaztea lortu genuen eta orain dela 2 aste, asteburu bakarrean 11 partidu irabazi genituen. Beraz, gorakada izugarria izan da, ez soilik jende kopuruaren aldetik, baita kalitatean ere. Txikitatik jokatzen hasita, maila ona segituan hartzen dute.

### Nolako osasuna du boleibolak Gipuzkoa mailan?

Gipuzkoa mailan indoor kirolen artean nesken fitxa gehien dituen kluba gara. Orain presidente berria sartu da eta gauza asko aldatzen ari dira. Gaur egun 17 klub inguru daude eta sortzen ari garen taldeak indar askorekin gatoz. Adibidez, Erreterian eta Villabonan talde berriak sortu dira. Mundu mailan, futbolaren atzetik, boleibola da kirol jendetsuena eta, beraz, hemendik aterata, argi ikusten da kirol honek duen osasun ona. Hemen oraindik historiaurrean gaude.

Behintzat, zuen lanari esker jende gehiagok ezagutuko du kirola inguru honetan, ezta? Bai, nabari da, bai. Lehen eta

“Gure helburu bakarra da kiroldegia beteta ikustea eta, pixkanaka, lortzen ari gara”

Bigarren Hezkuntzako eskolekin gauzak egiten ahalegintzen gara kirola zabaltzeko. Igande Sasoi programan ere parte hartzen dugu. Gure jokalarientzat ere bidaia prestatzen ditugu, adibidez, laster Benidormera joango gara ia 50 jokalarirekin eta 4 entrenatzailerekin. Geroz eta gauza gehiago egiten ari gara eta, horri esker, jende gehiago ari da hurbiltzen.

### Hain zuzen ere, zuen klubean ere, borondatezko lan handia egongo da, ezta?

Hori da, gu boluntarioak gara eta, noski, gure helburua ez da ezer irabaztea. Gure helburu bakarra da kiroldegia beteta ikustea eta, pixkanaka, lortzen ari gara. Irabaztea edo ez bigarren mailako helburua da. Jende asko ari da lanean kluba aurrera ateratzeko, ahal duen guztia eginez.

### Zeintzuk dira epe motzerako edo luzerako helburuak?

Gure erronka handiena lehiatzeko leku bat lortzea da. Gure asmoa da harrobiko talde bat izatea, jokalariek txikitan gurekin hasteko eta senior mailaraino iristeko. Hala ere, urtarilean jokalarik beterano batzuk gurekin jokatzen hasiko dira eta ama batzuk ere gerturatuko dira, boleibolean zer moduz moldatzen diren ikusteko, baina entrenatzeko asmoarekin soilik.

### Zer esango zenioke jendeari boleibolera erakartzeko?

Gurekin harremanetan jarri nahi badute, gure webgunea begiratu dezakete, orain dela gutxi klubeko aita batek egin digu eta oso polita geratu da. Argi dago boleibola ez zaiela denei gustatuko, baina garrantzitsua behintzat probatzea da. Oso kirol berezia da eta nik neuk ere ez nuen ezagutzen. Ez dago kontaktu fisikorik eta nik uste dut horrek berezi egiten duela. Benetan, oso polita eta gomendagarria da.

Fernando Vergara  
Fotógrafo  
www.fotogover.com  
www.fotogoverbodas.com  
info@fotogover.com  
Avda. LETXUMBORRO 100, 2º  
IRUN 20305 GIPUZKOA  
943 840 113 - 647 930 484

BODAS 2026-2027



**kiroletik**

BIDASOA ESKUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 943 04 20 62 | www.kiroletik.eus





KIROLAK

# LUR-ALAI KLUBA GOGOTIK ARI DA LANEAN GAZTE ETA EMAKUMEAK SQUASHERA ERAKARTZEKO

Lur Alai Squash klubak txapelketen antolaketa eta squash kirola ezagutarazteko ahalegin etengabea egiten du urtea. Iaz 80 federatu inguru izan zituzten klubean eta 2026a kopuru berari eusteko helburuarekin hasi dute. Gainera, gazte eta emakumeak ere kirolean eroso ibili daitezten ari dira lanean, posible duten heinean haiei lehentasuna emanez. Gorka Arretxe klubeko arduradunak urte berrirako helburuak errepasatu ditu.

## Nola hasi zenuten Lur Alai Squash klubarentzat denboraldi berri hau?

Denboraldia urrian hasten dugu guk, behin irailean zehar umeei ikasturtean zehar egingo dituzten jarduerak erabaki dituztenean. Federatuentzat, ordea, denboraldia urtarrilean abiatzen da. Aurten harrera ona izan dugu, 13 gaztetxorekin abiatu garelako eta urtean zehar beste pare bat izen-emate ere izan ditugu. Orain, urte berriarekin batera, federatuak fitxak berritzen hasiko dira. Behintzat iaz izan genuen fitxa kopuru bera, 80 inguru, mantentzea espero dugu. Urte

hasieran beherakada izan ohi da beti, baina ikasturteak aurrera egitearekin batera beti datoz izen-emate berriak.

## Nola antolatzen zarete harrobiarekin entrenatzeko?

Astean bitan egiten ditugu entrenamenduak: asteartetan 17:00etatik 19:15era eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara. Entrenamendu taldeak joko mailaren arabera antolatzen ditugu. Gazteei eta emakume helduei lehentasuna ematen saiatzen gara, nahiz eta gizonezkoei ezezkorik ez eman; guretzat landu eta sustatu beharreko kolektiboak dira horiek. Gaztetxoak eta emakumeak eroso sentiarazteko espazioak sortu behar ditugula uste dut, prestakuntza zentralizatu eta konfiantza hori eskaini ahal izateko.

## Nola joan dira orain gutxi emakumeei zuzenduriko doako prestakuntza saio berezituak?

Espainiako Federazioko Kirol Kontseilu Gorenak aurkeztu duen kirol programa batean parte hartzeko aukera eman zaigu eta oso eskertuta gaude. Horri esker, emakumeen artean squasha ezagutzeko doako 10 saio eskaini ditugu. Egitasmoak oso harrera ona izan du eta oso pozik gaude emaitzarekin. Espainia osoko beste klubetan egin da, baina uste dut gu izan garelako programa honi esker jende gehien batzea lortu duen kluba. Orokorrean, 30 lagunek parte hartu dute; batzuk behin bakarrik etorri dira,

**“Gaztetxoak eta emakumeak eroso sentiarazteko espazioak sortu behar ditugula uste dut, prestakuntza zentralizatu eta konfiantza hori eskaini ahal izateko”**

baina beste batzuek saio batean baino gehiagotan hartu dute parte, tartean, uztarketa edo kontziliazio arazoak daudela ezagututa. Albiste ona da 30 pertsona erakarri izana, nahiz eta gero klubean izenik ez eman, bilatzen duguna kirola erakustea delako. Noski,



interesa ikusteak itxaropentsu jartzen gaitu eta ongietorriak izango dira beti bai lehiatu nahi dutenak edo, besterik gabe, jokatu nahi dutenak ere.

## Zer balorazio egiten duzue 2025. urteko denboraldiaz?

Hiru pista soilekin denboraldiari eustea lortu dugu eta federatu kopurua ez da jaitsi. Beraz, leku gutxiagorekin jokalarikopuruari eustea ez da marka txarra. Pisten lurra berritu da eta, beraz, joko maila hobetzen lagundu digu horrek ere. Txapelketen aldetik, lehenengo aldiz nazioarteko txapelketa bat hartu dugu gurean eta squasheko profesionalen munduko zirkuituko txapelketa bat Irunera ekartzeak ere mesede handia egin digu. Balorazioa ere ona da eta errepikatzeke prest gaudenez, hori izango da gure erronketako bat. Bestetik, gure ohiko txapelketekin jarraitu nahi dugu, hau da, Gabonetakoa, Urte Berrikoa, Sanmartzialetakoa, Euskal Liga,... Juniorrekin Euskadiko Txapelketa ere antolatzeko prest egongo garelako uste dut.

## Txapelketen egutegia ikusita, jaietan eta oporraldi garaian jendea kirola egitera animatzen dela esango zenuke?

Bai, azkenean ohiko bihurtu diren hainbat txapelketa dauzkagu, adibidez, orain gutxi jokaturako Gabonetakoa eta orain Urte Berrikoa. Gabonetakoa 3 jokalariko talde mistotan jokatzen dugu. Taldea gizon, emakume eta gazte batek osatua egoten da eta horregatik berezia izaten da, nahiz eta kategoriak errespetatuz egiten dugun, noski. Horrela, inklusioaz gain, sozializatzeko aukera ere ematen du, oso txapelketa soziala baita: opariak banatzen dira eta urdaiazpiko bat zozkatzen da. Gainera, Gabonetan gehiago jaten dugunez, kirola egiteko aitzakia ona da.

## Urte berria ere squashean arituz hasiko duzue.

Hori da. Urtarrilaren 10ean, aurrekoaren formatu sozialari eutsiz, Urte Berriko txapelketa izango dugu. Oraingoan, txapelketa banakakoa da. Kategoriak gizon, emakume eta gazteen arabera bereizi arren, izaera mistoa dute, emakumeek gizonekin jokatzen baitute eta gazteei helduekin jokatzeke aukera ematen zaielako, maila egokia erakutsiz gero. Alizia Txoperena Txapelketa urteko beste hitzordu garrantzitsua izaten da, halaber. Txapelketa hori emakume hark bere garaian erakutsi zuen maila ona gogoratu nahian hasi genuen eta

horretarako, txapelketa indartsu bat prestatzen saiatu gara. Maila nazionaleko bi edizio antolatu genituen, Iberdrolako zirkuituaren barnean. Hurrengo urtean haratago joateko apustua egin nahi izan genuen eta oso gustura gaudenez, hala jarraituko dugu.

**“Leku gutxiagorekin jokalarikopuruari eustea ez da marka txarra”**

## 2026rako helburu jakin edo berezirik baduzue?

Bai, urte batetik bestera gauza berriak egiten saiatzen gara. Adibidez, 2025ean “Squash para todas” proiektuan parte hartu izanak ideia bat eman digu. Horrela, aurrerantzean klubetik, erakundeen laguntzarik gabe, halako programa bat egiten saiatu nahi dugu. Izan ere, jendea galdezka ari da ea egindakoa errepikatuko ote dugun. Astero eskaintzea ezinezkoa izango bada ere, behintzat hilabetean behin horrelako jarduerak egitea garrantzitsua da emakumeek squashean jarraipen bat izan dezaten. Horrek emakume gehiago erakartzen lagunduko digulakoan gaude.

## Zer aholku emango zenioke squasha probatzeko zalantzan dagoen norbaiti?

Esan dezakegu squasha ez dela oso kirol zaila eta behin probatuta erraz ikusten dela hori. Horixe ikusi zuten, hain zuzen ere, emakumeekin egindako programa berezi horretan parte hartu zutenek. Kanpotik ikusita atzera bota zaitzake, oso kirol azkarra delako. Dena den, errebote ezberdineko pilotak daude, biziak eta motelak. Gainera, frontoi itxi batean jokatzen denez, tenisetik, erremontetik edo pilotatik datozen jokalariek oso ondo moldatzen dira bertan. Abiadura eta erreflexuak pixkanaka lantzen diren gaitasunak dira. Gainera, kiroldegi barruan jokatzen den kirola izanda, bertan goxo gaude beti, neurriko tenperaturan, bai udan bai neguan. Bestetik, eremua itxia denez, pilotak ez du urrutira alde egiten. Lurra, egurrezkoa izanda, abantaila bat ere bada, artikulazioek gutxiago sufritzen baitute bertan. Ariketa oso jarraitua denez, asko izerditzea normala da eta ondorioz, epe laburrean kaloria asko erretzen dira. Azkenik, gaitasun asko lantzen dira: kontzentrazioa, abiadura, gorputz erreflexuak, etab. Beraz, ate irekien bitartez jendea erakarri nahi dugu, hori guztia ezagutu eta probatu dezaten.



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN FUTBOL EGOKITUAREN ETA OINARRIZKO FUTBOLAREN PROIEKUAN KOLABORATU  
ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, ZURE ZAIN GAUDE!

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjinia Mirarietakoa Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinios@cdsanmarcialirun.com



BETI GAZTE

# PIO BAROJA INSTITUTUKO IKASLEEK ODOLA EMATEKO SAIOA ANTOLATU DUTE URTARRILAREN 19RAKO

Pio Baroja institutuko ikasleak odolak gorputzean nolako garrantzia duen ikasten ari dira. Horrela, odola ematea funtsezkoa dela ulertuta, ikastetxean odola eman ahal izateko ekintza prestatu dute Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen laguntzaz. Enara Ramón, Uxue Iglesias, Mara López, Naiara Gómez, Noa Aguilar eta Ayelen Carballo ikasleek urtarrilaren 19rako antolatutako ekintzaren xehetasunak eman dituzte.

## Nolatan erabaki duzue Pio Baroja Institututik odol emate kanpaina bat antolatzea?

**Noa:** Egia esan, irakasleek proposatutako proiektua da hau. Beraz, beraiek arduratu dira ekintza egin ahal izateko antolaketa lan guztiaz. Giza fisiologiako ikasgaiaren barnean garatzen ari garen proiektua da. Izan ere, ikasgai horretan odolak zer egiten duen eta gorputzean nolako garrantzia duen lantzen ari gara. Horri esker, konturatu gara zeinen garrantzitsua den odola ematea eta, beraz, horregatik erabaki dugu proiektu hau hastea. Gutxi gorabehera, abendu hasierarekin batera hasi gara odola emateko ekitaldiaren antolaketa prestatzen.

## Odola emateko ekintzara begira, nola banatu dituzue antolaketak zereginak?

**Ayelen:** Klasea hainbat taldetan banatu dugu. Horrela, guztiek lan bera egin arren, talde txikitan egingo dugu, hobeto antolatzeko.

**Naiara:** Guztira, 4 talde gara eta denak egitasmoaren berri

emateko esku-orriak prestatzen hasi gara. Bakoitzak bere modura egin arren, partekatuko dugun informazioa berbera izango da.

## Zehazki, noiz egingo duzue odol ematea?

**Mara:** Ekintza, zehazki, urtarrilaren 19an, astelehenean, egingo dugu. Pio Baroja institutuko kiroldegian izango da. Odol emateak 16:30ean hasi eta arratsaldeko 19:30ak arte luzatuko dira. Txanda bakoitzean 3 odol emate egin ahalko ditugu gehienez eta 20 minutu inguruko iraupena izango dute gutxi gorabehera. **Naiara:** Aurretik, ekintzan izena eman ahal izateko, hainbat talde hiriko kaleetara irtengo gara, urtarrilaren 12tik 16ra, eta sortutako esku-orriak banatuko ditugu, informazioa zabaldu eta parte hartu nahi dutenen izenak hartzeko. Beraz, bai, urtarrilaren 19an odola eman ahal izateko aurretik izena ematea beharrezkoa izango da.

## Zein baldintza bete behar ditu pertsona batek odola eman ahal izateko?

**Enara:** Edozeinek ezin dezake odola eman eta, beraz, beharrezkoa da oinarrizko baldintza batzuk betetzea. Adibidez, 18 urte baino gehiago izatea ezinbestekoa da. Gero, 50 kilo baino gehiago pisatzea eskatzen da. Bestetik, gaixotasunen bat baduzu, medikuari jakinarazi behar diozu aurretik, odola eman dezakezun edo ez ikusteko.

## Odol mota ezberdinen artean, badira bereziki interesatzen zaizkizuenak?

**“Aurretik, ekintzan izena eman ahal izateko, hainbat talde hiriko kaleetara irtengo gara, urtarrilaren 12tik 16ra”**  
Naiara Gómez, Pio Baroja institutuko ikaslea

**Uxue:** Bai, 0-, 0+ eta A+ odol motak bereziki beharrezkoak dira. Batetik, 0- odolak talde guztiei odola emateko balio dezakeelako. A+, berriz, 0+ odol motarekin batera, odol mota ugariena da eta,



ondorioz, oso beharrezkoa.

## Nolako lotura du proiektu honek ikastetxean lantzen ari zareten edukiarekin?

**Noa:** Gai hau anatomia klasearen barnean jorratu dugu, giza fisio atalean. Orain hasi gara odolarekin zerikusia duen guztia lantzen, adibidez, odol mota ezberdinak aztertzen, gorputzean odolak zer funtzio betetzen duen ulertzen, etab.

## Horrelako jarduera bereziek edo ezohikoek, klasean landutako edukia barneratzen laguntzen dutela uste duzue?

**Naiara:** Bai, noski, horrelako ekintzei esker errazagoa egiten zaigu ikastea. Gaia dibertigarriago bihurtzen dute, klasean azalpenak soilik entzutea baino hobeto.

**Mara:** Gainera, aipatzekoa da hau guztia antolatzeko Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearekin harremanetan jarri garela, izan ere, haiek dira gai honetan adituak. Beraz, harreman horri esker gauza berriak ikasteko aukera izango dugula uste dugu.

## Odola biltzeaz gain, proiektua jendea odola ematearen garrantziaz kontzientziatzeko lagungarria izango dela uste duzue?

**Ayelen:** Aipatu dugun bezala, odola ematea oso garrantzitsua da. Azkenean, gaizki dauden pertsonen laguntzeko modu bat delako. Beraz, gai hori ikusaraztea beharrezkoa da, ahal bezain jende gehien odola ematera etorri dadin eta odolik falta ez dadin.

## Zuek adinarengatik odola eman ezin baduzue ere, ikaskide gazteak etorkizunera begira gaiaz informatzea garrantzitsua izango da, ezta?

**Noa:** Bai, hori da, institutuan gutxi dira 18 urte baino gehiago dituztenak. Baina ondo dago haiek eta gainontzekoek jada jakitea odola ematea zeinen garrantzitsua den eta horren alde egiten ari garen proiektua. Beraz, odola ematera etorriko diren gehienak ikastetxetik kanpokoak izango dira, baina institutuan

ere emango diogu proiektuari zabalpena, noski.

## Nolako harrera izan du egitasmoak orain partekatzen hasi zaretenean?

**Uxue:** Ikastetxean ez

dugu informazio askorik zabaldu oraindik, baina gai hain garrantzitsua izanik, onarpen oso ona izango duela uste dugu. Azkenean, odola gizarte guztiarentzat beharrezkoa da. Guk zehazki 27 odol emaile beharko ditugu antolatzen ari garen saiorako.

## Finkatutako helburu hori lortzeko gai izango zaretela uste duzue?

**Naiara:** Bai, hala espero dugu. Klean hainbat puntutan informazioa emateko aterako garela eta 4 lantaldetan antolatuko garela horretarako. Gainera, egun horretan odola eman ezin duenak, Irunen beste aukera batzuk ditu odola eman ahal izateko. Hain zuzen ere, Iraso zentro sozialean, hilero, hilabeteko bigarren, hirugarren eta laugarren ostegunean, arratsaldean.

## Amaitzeko, zer mezu bidaliko zenukete jendea odola ematera animatzeko?

**Mara:** Esan dezakegu ez dela denbora askorik behar odola emateko eta odola ematen duen pertsonarentzat ez duela inongo kalterik. Gainera, gogoratu behar da odola emateak bizitzak salbatu ditzakeela. Beraz, ekintza hau keinu hori izateko aukera ona dela uste dugu.

**Naiara:** Jendeak jakin dezan, gure ekitaldian, Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen laguntza izango dugu eta bertan 3 erizain eta mediku 1 izango ditugu gurekin. Gu, berriz, antolaketarako behar dutenean laguntzen egongo gara, irakasle batzuekin batera.



ETORRI ETA GOZATU ZURE LAGUN ETA  
SENIDEENTZAKO GIRO ATSEGINAZ

KARTA • EGUNEKO MENUA • PLATER BEREZIAK • PAELLAK • PINTXOAK  
ERRAZIOAK • OGITARTEKOAK • HANBURGESAK • HAURREN MENUA

Anzaran plaza, 14, Irun, Gipuzkoa | 943 664 897 / 684 802 482 | [www.pikarestobar.com](http://www.pikarestobar.com)



ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.  
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | [info@ventanasaramburu.com](mailto:info@ventanasaramburu.com) | [www.ventanasaramburu.com](http://www.ventanasaramburu.com)



📍 CBA Kultur Gunea  
 ☎ 943 50 54 44  
 ✉ igazte@irun.org  
 📞 607 77 11 73  
 🌐 www.irun.org/igazte

## KIROL EGOKITUA



12 eta 17 urte bitartean dituzu eta mugitzea, jolastea eta ondo pasatzea gustatzen zaizu? Ba orduan primerakoa da jarduera hau zuretzat!

**ARTIA** Gaztelekuan Kirol Egokitua egitera gonbidatzen zaitugu, pertsona guztiak kontuan hartzen dituen jarduera batean, gaitasunak edozein direla ere. Gipuzkoako Kirol Egokituaren federazioaren eskutik, hainbat kirol probatzeko aukera izango duzu. Gainera, ondo pasatzeko eta lagun berriak egiteko aukera paregabea da.

### Ekintza guztiz doakoa da!

Parte hartzeko gogoia, ondo pasatzeko grina eta une politikak partekatzeko prest egotea besterik ez duzu behar.

Zatoz, probatu, mugitu eta gozatu kirolaz beste modu batean. Zain izango gaituzu!

Izen-emateak eta INFO+: Gaztelekuan bertan edo whatsappera (681 946 798), Instagramera (@gazteleku\_artia) edo korreora (gazteleku\_artia@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena.

## STOP MOTION TAILERRA



Urtarrilaren 17an eta 24an bi eguneko doako tailerra izango dugu **Martindozenea Gaztelekuan**. Stop motion tailer horretan, grabazio teknika hori ezagutuko dugu. Stop motion animazio-teknika bat da, mugimenduaren ilusioa sortzen duena irudi finkoz osatutako (fotograma) sekuentzia baten bidez. Irudi horietan, objektu bizigabeek pixka bat mugitzen edo kokapena aldatzen dute argazki bakoitzaren artean, eta ondoren azkar erreproduzitzen dira jarraipen-sentsazioa simulatuz. Horrelako pelikula ezagunenak aipatzearren: "Pesadilla antes de Navidad" edota "Memorias de un caracol".

**Plazak mugatuak dira. Izen-emateak Gaztelekuan bertan edo whatsappera** (690706471), Instagramera (@gazteleku\_martindozenea) edo korreora (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz egin daitezke.

## 15-18 ESPAZIOA



Hilabete honetan **15-18ko espazioan urtarrilaren 16an Smash Burger profesionalak egiten ikasiko dugu eta urtarrilaren 23an txokolate dastatze edo kata berezi bat antolatu dugu...** begiak estalita!

**Izena eman nahi baduzu bidali mezu bat 656 79 43 72 whatsappera**, konekta@irun.org emailera, @gazteartean\_irun instagramera edo apuntatu zaitetz Martindozenea Gaztelekuan bertan!



KULTURA

## EZABATU ZURE AZTARNA



Jolas kooperatiboen bitartez, **bakoitzak sortutako aztarna ekologikoa ikertu** eta konpromiso kolektiboak hartuko dituzte familiek planetan duten eragina murrizteko, ohituretan aldaketa txikiak eginez.

**Noiz:** Urtarrilaren 11n, igandean.

**Non:** Ekoetxea Txingudin.

**Ordua:** 11:00etatik 12:30era.

**Publikoa:** 5 urtetik aurrerako haurrak dauzkaten familiak.

## 'BAGINAREN BAKARRIZKETAK'



Umorea, samurtasuna eta batzuetan beldurra baliatuz, Ainhoa Etxebarriak, Itziar Urretabizkaia eta Intza Alkainek **emakumeei ahotsa ematen diete poesiaren**, probokazioaren eta barrearen bidez.

**Noiz:** Urtarrilaren 16an, ostiralean.

**Ordua:** 20:00etan.

**Non:** CBA - Kultura eta Sorkuntza Zentroa

## KATXIPORRETA 'ZERUA LAPURTU DUTE'



**Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore** arduratuta daude izarrik ikusten ez dutelako. Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila...

**Noiz:** Urtarrilaren 24an, larunbatean.

**Ordua:** 16:00etan eta 18:30ean.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

## DANTZA 'LA SENIOR'



**Larrua Proiektuak hamargarren urteurrena** dauka, eta lan ildo berri baten sorreraz ospatuko du: **Larrua Senior**: nortasun propioarekin datorren konpainiaren proiektu paraleloa.

**Noiz:** Urtarrilaren 30ean, ostiralean.

**Ordua:** 20:00etan.

**Non:** CBA - Kultura eta Sorkuntza Zentroan.



### ZURE BIZITZA GUREKIN MARKOZTU NAHI DUZU?

MARKOGINTZA - AHOLKULARITZA - OBRA GRAFIKOA - GURE TAILERRA

KONTSERBAZIO-MATERIALAK - ZAHARBERRITZEA

Geltoki kalea, 13 | info@atrezzo.eus | 943 61 72 98 | www.atrezzo.eus



PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA

Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

# ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOA DUTEN LEIHOAK

Isolamendu handiagoa.  
Zarata gutxiago.



Aluminioa  
eta PVC



Diseinua,  
kalitatea eta  
iraunkortasuna



Konpromisorik  
gabeko  
aurrekontua



**JARRI GUREKIN HARREMANETAN**

Gabiria Kalea 42, Irun

Telefonia: (+34)943 62 22 57

Email: [info@ventanasaramburu.com](mailto:info@ventanasaramburu.com)